

## LISIEUX-KO TERESA "JAINKOAREN TXIROA"

### SARRERA

Lisieux-ko Terera Jesus haurrenaren mendeurrena dela eta, bere idazki batzuk euskaratzen niharduela, idazlan horietarako sarrera batean, egin-eginean ere, Guy Gaucher, Bayux eta Lisieux-ko apezpiku laguntzaileak eskainitako aurkezpena itzultzerakoa, honako honekin egin nuen topo: "*Egia da, "arima txiki" multzo handi batek -Yahveren txiroek, Ebanjelioko txikiek- ezkutuko hori ikusi dutela, eta, baita ere, -harridura handiago sortzen duela- hainbat jakintsuk, Emmanuel Mounier-ek bezala honakoa ohar-tarazten zuelarik: "Teresa Izpiritu Santuaren bitxikeria da" (Cf. B.Bro, *La Gloire et le Médiant*, 16-17. orr.)*

Azken ferro hauetan ageri diren "*Yahve-ren txiroek, Ebanjelioko txikiek*" irakurtzean, duela hainbat urte, Teologiako lizentziatura egiterakoan, sakonkiro aztertzen aritu nintzen garaiko "*Teresatxo donea Jaunaren "Anaw"* tesia etorri zitzaidan bat-batean gogora, barnean zirrara eginez eta lan hau egitera bultzatuz.

Lan honetan, bada, Teresak, bere bizitza labur horretan nola bizi izan zuen Biblian ageri den "txiro edo behartsu" izate hori azertu edota Ebanjelioan Jesusek bere Erreinuan parte hartzeko eskatzen digun "haur" izate horri buruzko gogoeta egin nahi dut, Jainkoaren bideak eta Teresaren bizitza ulertzeko ikuspegi berri bat izango dugulakoan.

Horretarako gainbegirada labur bat egingo dugu Itun Zaharrean zehar, salmoetan sakonkiago arituz, txiro ("Anawin"= "Anaw" hitzaren plurala) horiek nola ageri zaizkigun ikusteko. Hemen, bestalde, "Anawin" izena, adiera zabalean harantz, "txiroak", "behartsuak", "apalak", "kaskarrak", "oinperatutakoak", "ezeukiak" "errukarriak" izanik, euren ustea Jaunaren eskuetan oso-osorik jarri duten guztiak aipatzeko erabiliko dut.

Hori horrela izanda ere, "Anaw" hitza, salmoetan eta Teresatxo donearen bizitzan manituta agertzen den arren, ezingo dugu ahaztu, Itun Zaharreko sinestedunek ez bezala, Teresatxok beste argi bizi bat ere izan zuela, hain zuzen ere, Ebanjelioarena, horrek, txiro edo txiki ("anaw") izate horri sakonago esanahia ematen diolarik. Egin-eginean ere, Teresaren bizitzan ez zaizkigu ageri salmoetan aurkitzen ditugun hutsune batzuk eta hori Itun

Berriko argipean bizi izan zelako. Hori dela eta, salmoetan bertan baino askoz ere sakonago eta aberatsago ageri zaigula txiro edo behartsu ("Anaw") izate hori Teresatxo donearen bizitzan esan behar.

Teresatxok chun eta hamabi aldiz aipatzen dizkigu salmo-atalak bere idazkietan, baina beti, Jesukristo gure jaunik eta san Paulok ulertzen zituen erataria hartuta. Honetan datza salmoen eta Teresatxoren idazkien artean dagoen ezberdintasunaren iturburua.

Aurreko guztia gogoan izanik, atal handi bitan bananduko dut, bada, lan hau. Lehenengo eta behin idazki santuetan nola ageri zaizkigun txiro edo behartsu ("Anawin") horiek ikusiz, eta Teresaren testuak gidamutil ditudala, nola bizi izan zuen honek bere bizitzan Jainkoagan konfiantza osoa jarrita "behartsu", "txiro" edo "txiki" izate hori aztertzeraz joko dut. Horretarako, egarria ur garbicitan asetzeko, batez ere beraren testuak ekarriko ditut, zuzen-zuzenean iturburura joz.

## I.- TXIROAK ITUN ZAHARREAN

"Txiro" esakerak ez du adiera berdina Itun Zaharreko atal guztietan. Hori dela eta, beharrezkoa dugu, esangura ondo ulertzeko hasieratik adiera egokiro zehaztea. Horrela, batez ere, ikusi ahal izango dugu nola agertzen den salmoetan "txiro" horien bizitza.

### 1. Israel herria "txiroen" herria.

Ezer baino lehenago, txiroak oso ezagunak ditugula Itun Zaharrean esan behar. Eta ez da, izan ere, hau harritzekoa, Israel Herria, hasiera-hasieratik ondasun gabeko herri kaskar bat baino ez baitugu. Herri txiro bat baino ez. Jainkoak lur honetako herri txikien artean aukeratutako herri kaskarra. Horregatik nahitaez aipatu behar sarritan txiro-bizitza bere idazkietan. Nahiz eta aberats banaka batzuk izan herri horretan, gehientsuenak, txiro edota oso txiro ageri zaizkigu.

Judutarrak, herri txiki ibiltaria izanik, hala-hola bizi behar gose eta larri. Horregatik *edo jaitsi ziren Egitara ere, zer jan eta non bizi bila edo. Eta han egon behar izan zuten luza-roan menperatuta, inoren morroi eta esklabu, askatasunik gabe, nahiko egoera kaskarrean.*

Horregatik edo, Jainkoak berak ere han bertan eman zion hasiera salbamena-bideari, lehenengo, askatasuna agindu eta emanez, eta gero, lurralde berri batzuetara eramanez, herri horren Salbatzaile eta Jainko agertuz.

Jainkoak honetara jokatu zuen, urteak joan urteak etorri, bere Herriarekin. Lehen eta behin salbamena eskaintzen zion eskuzabaltasunez eta, jarraian, zintzotasuna eskatzen.

### 2. Jainkoa txiroen alde

Baina berehalaxe alden du zen judutar herri hori zuzentasunezko bidetik. Askatasunaz eta lurralde berriaz jabetu orduko, elkarren artean batzuk besteak menperatzen hasi ziren. Gogortu egin zitzairen israeldarrei bihotza. Ahaztu egin zuten Jainkoak irakatsitako

bidea. Hori dela eta edo ageri zaizkigu hainbeste lege ondasunak nola erabili aginduz. Eskuzabalak izan baziren ez zuten holakoan premiarik izango! Lege asko ageri zaizkigu, ageri ere, txiroen, alargunen, oinperatutakoen eta umezurtzen alde emanda:

*"Zuen herritarren bat zorrak egin eta zuekin zituen betebeharrei aurre egin ezinik aurkitzen bada, lagundu egingo diozue eta bizirik irauteko modua emango, zuen artean bizi den etorkinari bezala. Ez diozue inolako interesik eskatuko. Horrela erakutsiko duzue begirune diozuela zeuen Jainkoari, eta zuei esker bizi ahal izango da herritarra. Ez eman dirua interesak jasotzeko asmoz, ezta janaria ere etekina ateratzeko. Neu naiz Jauna, zuen Jainkoa, Kanaan lurraldea emateko eta zuen Jainko izateko Egipdotik atera zintuztena"* (Lb.25, 35-38).

*"Jaunak zeuen Jainkoak emango dizuen lurraldeko hiriren batean zuen herritarren bat behartsu bada, ez izan bihozgabe, ez laguntzarik ukatu senide behartsuari; eskuzabal izango zarete berarekin eta bere premia estaltzeko behar duena emango diozue maileguz"*. (Dt.15,7-11).

Zer esanik ez, Israeldar Herri horren bihozgortasuna ikusten zuelako edo eman zizkion Jainkoak honetarik lege guztiak. Honetara, esaterako, zazpi urterik behin guztiak askatasuna hartu beharko zuten; saldutako lurra ere lehengo ugazaben eskuetara etorriko ziren eta, antzera, beste zenbait lege eder (Ikus, Dt. 23,19-22; Dt. 15,12-15; 15,1-5; Ir. 23, 6-8; Ib.25,23-28, 19,33-34 etab.)

Eta Jainkoak beti arrazoi berdina: *"Izan errukitsuak eta eskuzabalekoak txiro eta behartsuentzat, zeuok ere txiroak, behartsuak eta menperatutakoak izan zifieten Ejipton eta"*. (Dt. 23,19-22; ikus, Lb. 25,35-38; 19,33-34). *"Ez zaituzte aukeratu Jainkoak herri handi eta zabal bat zarelako, ba herririk kaskarrena zarete"* (Dt.7,7).

Baina israeldarrak lur honetako ondasunetara joko dute. Ez dute euren uste osoa Jainkoarengan jarriko. Ez diote Jainkoaren asmo eder horiei jaramonik egingo. Askatasuna eskuratu orduko, inoiz menperatuta egon ez balira bezala, inguruko senideak menperatzeari ekingo diote. Bihotzak gogortuko zaizkie hain urri eduki zituzten ondasunen egarriak liluratuta.

Eta hona hemen non sortzen den inoiz egon den borrokarik bitxiene. Jainkoa, bihozabal eta errukior txiroen eta behartsuen alde eta gizakia, bihozgogor hurkoa oinperatze-ko ahaleginak egiten.

### 3. Igarleen deadarrak

Igarleak ditugu borroka gogor horren mezulariak, Jainkoak bultzatuta dihardute. Jainkoaren asmo-agertzailak ditugu. Argi eta garbi ikusten dituzte handikien indarkeria eta zuzengabekeriak eta gogor eta etengabeki salatzen. Jainkoak ezin ditu txiroak, makalak, kaskarrak, behartsuak oinperatuta ikusi:

*"Umezurtzen arrazoiak alde batera bota dituzte eta ez dituzte ontzat hartu txiroen eskubi-deak"* (Jer.5,28). Horregatik atzerritarren menpean eroriko da Israel Herria.

*"Zuek erre egin duzue nire mahastia. Etxean gorde txiroei ostutakoa. Baina zer ardurara horrek? Nire Herria zapaldu baino ez duzue egiten eta arpegiz arpegi txiroak lotsatu"* (Is.3,14-15). Horregatik lotsa gogorrean aurkituko dira herriko agintari guztiak.

*"Txiroak zuon oinpean dabilbazuelako eta gari-zorroak eskatzen dizkiezuelako, ez zarete egindako etxe eder horietan biziko eta ez duzue zuon mahasti ederretako ardo gozorik edango"* (Amos, 5,11-12; Ikus, Amos, 8,4-7; 3,14-15; 1,6-7).

*"Zure agintariak errebeldeak dira, lapurrekin bat datoz. Denak eskupeko-zale, erregalugose. Umezurtzari ez diote justiziarik egiten, alargunaren eskubideak ez die axolarik. Horregatik, honela dio Jaun ahalguztidunak, Israelgo Indaritsuak: "Hara, mendeku hartuko dut etsaien lepotik, ordaina eman beharko dute" (Is.1, 23-24; Cf. Is.3,14-15; 5,8-9; 3,16-25;58,5-12; Jer.8,19,21;9,1...)*

#### 4. Jainkoaren zigorra

Eta igarleak esandako horiek guztiak, esan eta jazo. Israel Herria atzerritarrek menpean hartua izan zen. Herritar asko atzerrira eramanak. Eta une negargarri horretan, igarleen dei gogor horiei esker, gogoeta sakon bat egin zuen herriak. Begira zer dioskun Danielek honetaz:

*"Baina zarena zarelako, ez gaitzazu betiko utz, ez hautsi gurekin egina duzun ituna, Abraham zeure adiskideagatik, Isaak zeure zerbitzariagatik, Jacob zeure herri santuaren aitarengatik ez aidentu guregandik zeure errukia! Beraiei hitzeman zenien zeruko izarrak bezala ugarituko zenizkiela ondorengoak, itsasbaterreko hondarra bezain ugari egingo zenituela. Orain, ordea, Jauna, herri guztietan txikiena gara, mundu osoan gaude mesprezatuak geure bekatuengatik. Gaur egun ez dugu ez errege, ez profeta, ez buruzagirik, ezta tenplurik ere, sakrifizioak, opariak eta intsentsua eskaintzeko; ez dugu lehen fruituak non eskainirik zure errukia lortzeko. Baina damuz hautsirik eta umildurik gatozkizu"(Dan.Gr.3,35-39)*

Horrela herri hori oina non jarri ez zeukala aurkitzen zen eta laster bihurtu zen Jangoikoagana. Baina oraingoan ez lehenago bezala, laster batean berriro lehenago eginetara etorteko. Atzerritik etorritako herri hori guztiz aldatuta etorri da. Israeldar horiek txiro eta behartsu ikusi dituzte beren buruak atzerrian, Jangoikoaren aurrean, eta ezer gabe itzuli dira lurralde santura. Hori guztia beraien burugogortasunagatik gertatu zaiela ikasi dute. Horrela txiro eta biluzik, itxaropen osoa Jainkoagan jarriko duten txiro berriak sortzen dira.

#### 5. Sakonagoko txiroak

Esan bezala, Israel herriak ezin dela Jangoikoaren aurrean harrotu ikusi du; eta Haren aurrean bere burua txiro eta ahul ikustean ezer gutxi dela konturatu da. Txiro ("Anaw") izateak sakokontasun handi bat hartu du. *Hemendik aurrera izen hori Jainkoagan uste osoa jarrita bizi diren txiro, behartsu, oinperatu eta hauetariko guztiei dei egiteko erabiliko da. Honetara bizi direnak izango dira egiazko txiroak.* Jainkoak bere onspenez beteko dituen txiroak.

Igarleek, deiadar egitean, "hondar bat", "txiroak", "apalak" aipatzen dituzte. Hauek ez dira Amos igarleak aipatzen zituen lur honetako ezeuki, oinperatu, behartsu hutsak (Amos, 5,11-13). Hauek ondasuntzat Jainkoa bera dutenak dira. Hauek egingo dute Jainkoaren egiazko Herria: *"Eta jende apal eta behartsua utziko dut zurean: niregan izango dute babes"*. (Sof.3,12). Hitz horiek ere sakonagoko esangura bat hartzen dute.

Sakonagoko txirotasun bat iragartzen dute igarle horiek: Jainkoaren aurrean ezer ez izatea edo gizonaren barru-barruko xirotasuna. Xirotasun honek Israel Herriko harrockeria baztertuko du (Is.2,11) uste osoa Jainkoagan jartzea ekarriz. Sofonias igarleak, bada,

bide berri bat egiten du eta bertatik eraman nahi du Israel Herria. Jainkoaren Eskaintzak "Hondar" batek baino ez ditu eskuratuko. "Hondar" horietakoak apalak eta behartsuak (Anawin) izango dira. Hau da, beraien irteera eta etorrera guztiak Jaunaren eskuetan dituztenak (Sof.3,9-12).

Horien guztien adibiderik argiena Jeremias igarlea dugu. "Behartsu" bat eginda, guztiz oinperatuta eta zapalduta bizi izan zen igarle honen bizimodu apalak indar handia eman zion erakutsi mamintsu honi. Berdintsu jokatu zuen Isaias igarleak ere. Honek ere, ahalegin handiak egin zituen, gizakia Jainkoaren aurrean ez dela ezer eta izugarizko txirotasuna daukala agertzen (Is.57,15). Eta horrela gainerako igarleak ere.

Jainkoak bere Herriaren sinesmena eta erlijioa bahean garbitu eta sakontasunez jantzi izan nahi zituen lur honetako oinarri guztiak kenduz, oso-osoa Berarengana bihur zedin. Honela sortu zen "*Israelgo Hondar-Herria*": Jainkoaren eskutan itxaropen osoa jarri eta beregandik Salbazioa itxarongo zuen Herria. "*Hondar-Herri*" osatzen dutenak izango ditugu Israelgo txiroak ("*Anawin*"). Eurok eskuratuko dituzte Jainkoaren Eskaintza guztiak.

## II.-TXIROEN (ANAWIN) OTOITZAK

Ikusi dugu nola igarleen bitartez Jainkoak eraberritu eta garbitu zuen bere herriaren erlijiotasuna. Atzeritik etorritako Israel Herri berri hori, esan bezala, aurrekoa ez bezalako da: "Israelgo Hondar-Herria". Oraingo herri horrek bere gertakizun guztiak Jainkoaren eskuetan jarrita biziko du bere erlijiotasuna, "behartsu" eta "apal" izanik, sakon-sakoneko txirotasuna biziz. Lur honetan ez aterperik ez oinarririk, ezer ez daukaten oinperatu, gaizki-ikusi, behartsu, indarge, errukarri eta halakoek osatutako Herria dugu.

Hau guztia, bere otoitzean agertzen digu, era berezian, Herri horrek, egin-eginean ere, otoitz-iturri garden zituen salmoetan. Hauetan agertuko zaizkigu pil-pil eta argi-argi "anawin" (txiro) horien asmoak, sineskerak, itxaropenak, usteak, hain zuzen ere, bihotz barreneko taupadak. Horrela:

### 1. Jainkoak behartsuen alde egiten du

Jainkoak argiro agertuko digu behartsuen alde dagoela eta behartsu, zapaldu, bihotz-hautsi, ahul eta errukarrien gordeleku dela:

*"Hurbil dago Jauna bihotz-hautsiengandik / eta salbatzen ditu etsita daudenak"* (Ps.34,19)

*"Zuk duzu herri zapaldua salbatzen / eta harroputzen handikeria makurrarazten"* (Ps.18,28)

*"Bihotz-bihotzetik esango dut: "Nor zu bezalakorik, Jauna? / Dohakabea askatzen duzu indartsuagoaren eskutik, / errukarri eta behartsua, zapaltzaileagandik"*. (Ps.35,10). Cf.:Ps.10, 14, 17-18.

*"Entzun, Jauna, errukarrien desioak, / emaezu adore, / adi izan belarria haiengana, / umezurtz eta zapalduaren eskubideak babesteko"* (Ps.10, 17-18).

## 2. Mesiasek ere behartsuen alde jadingo du

Isaiasek, Mesias Erregeak "Behartsu", "txiro", "umezurtz", "alargun", "errukarti", "gizagaixo" eta honetariko ahul eta ezeuki guztien alde egingo zuela iragarri zuen. Hala-ko guztiei zuzentasuna egingo ziela:

*"Egun hartan, liburuko hitzak entzungo dituzte gorrek eta iluberik eta itzalik gabe ikusiko itsuek. Dohakabeak herrira Jaunarekin poztuko dira eta gizakirik behartsuenak Israelgo Jainko santuarekin gozatuko. Izan ere zapaltzailea hilko da, harroputza galduko, kalte egiteko erne dabilzanak akabatuko"* (Is 29,18-21).

*"Jainko Jaunaren izpiritua nire gainean dago. Jaunak sagaratu bainau; berak nau bidali behartsuei berriona hotsegitera, bihotz-hautsiak sendatzera, gatibuei askatasuna eta gartzelatuiei libertatea iragaritzera. Jaunak onginahia azalduko duen urtea eta mendekatuko den eguna iragartzera. Siongo atsekabetuak kontsolatzera bidali nau Jaunak"* (Is 61,1-2).

Isaias igarleak iragarri zuen hori guztiari, hainbat aldiz errepikatuta ageri zaigu salmoetan. Esate baterako honako honetan:

*"Egin biezaie justizia herriko dohakabeei, / salba bitza behartsuak, apurtu zapaltzaileak! (...). / Berak libratuko du laguntza eske oihuka ari den behartsua, / nork defendaturik ez duen dohakabea. / Cupida izango die gizagaixo eta pobreei, / bizia salbanuko behartsuei. / Berak babestuko ditu gogorkeria eta hidedgabekeriarik. / Balio handia izango du haien biziak berarentzat!"* (Sal 72,4,12-14).

## 3. Gizakiak ere Jainkoaren antzera jokatu behar du

Baina ez da, bakarrik, Jainkoa behartsu eta dohakabe horien alde dagoela aitortzea. Jainko horrek bere antzera jokatzeko eskatzen dio bere Herriari. Horregatik bedeinkatuko ditu Jainkoak bere antzera eskuzabalekoak diren errukitsuak eta gogor zigortuko, txiro eta behartsu horientzat guztientzat bihozgogorrak direnak.

*"Zorionekoa gizagaixoaz arduratzen dena! / Onik aterako du Jaunak zoritxar-garaian. / Bizirik gordeko du eta zoriontsu egingo lurrean, / ez du utziko etsaien gogara."* (Sal 41, 2-3).

*"Defendatu gizagaixo eta umezurtzak, / egin justizia dohakabe eta behartsuei! / Askatu gizagaixo eta behartsuak, / libratu gaizkileen eskutik!"* (Sal 82,3-4)

*"Zorionekoa Jaunari begirune diona / eta haren aginduak hiziki atsegin dituen. / Eskua betean ematen die behartsuei, / haren eskuzabaltasunak betiko dirau: / ohorez jasoko du kopeta"* (Sal 112, 1,9).

*"Baina Jaunak dio: "Errukarriak zapaltzen dituztelako, / behartsuak intzirika ari direlako, / oraintxe jaikiko naiz eta salbanuko dut hasperenka ari dena"* (Sal 12,6).

## 4. Jainkoa oso bihozbiguna dugu

Salmoetan beste ezeren gainetik Jainkoaren neurrigabeko maitasuna eta errukia ageri zaizkigu. Batez ere, "txiro", "gizagaixo", "indargabe", "behartsu", "oinperatu" eta "aterpegabe" direnentzat daukan maitasun xamurra. Ageri ere, oso sarti ageri zaizkigu beraietan Jainko maitagarriaren asmo samur eta maitekor horiek, csaterako, 5, 6, 8, 25, 103, 107 eta abarretan. Hona hemen, bada, atal batzuk:

*"Erru guztiak barkatzen dizkit, gaitz guztiak sendatzen; / bizia Herio-Leizetik ateratzen dit, / maitasun eta errukiz inguratzen nau; / bizitza osoan bere edertasunez nau asetzen, / beti arranoa bezain gazte gordetzen. / jaunak justizia egiten du, / zapalduen eskubideak defendatzen. / Nola aita seme-alabentzat errukior, / hala Jauna begirune diotenentzat errukior. / Badaki ongi zerez garen eginak, / gogoan du hautsa hesterik ez gurela"* (Sal 103,3-5,13-14).

*"Garets bezate Jauna bere maitasunagatik, / gizakien alde egiten dituen / gauza harrigarriengatik. / Egarriz larri zeudenak ase ditu, / gosetuak ondasunez bete"* (Sal 107, 8-9)

*"Zintzoen salbamena Jaunarengandik dator: / hura dute gotorleku arrisku-garaian. / Jaunak laguntzen die eta onik ateratzen, / onik ateratzen gaiztoengaindik eta salbarzen, / berarengan baitira babestu"* (Sal 37-40).

## 5. Jainkoa txiroen babesleku

Aurreko hori ikusita ez da harrizkoa "txiro", "erukarri", "ahul", "behartsu" guzti horiek jainkoagan uste osoa jarri eta Jainko arduratsu aterpe eta gordeleku gisa hartzea. Oinak non jarri ez dutelarik, esan bezala, Jainkoa hartuko dute babesleku edo aterpetzat:

*"Jauna dut argi eta salbamen: nork ni beldurtu? / Jaunak dit bizia babesten: nork ni ikaratu?"* (Sal 27,1).

*"Ez, Jainkoak ez du ahazten behartsua; / errukarrien itxaropenak ezin hutsegini"* (Sal 9,19)

*"Erakuts zeure maitasun harrigarria, / erasotzaileengandik salbatzen baitituzu / zure esku ahaltsuan babesten direnak. / Zaindu nazazu zeure begininia bezala, / gorde ni zure hegalean itzalpean, / larrutu nahi nauten gaizkileengandik, / inguratzen nauten etsai amorrauengandik"* (Sal 17,7-9).

*"Jauna ihesleku da zapalduarentzat, / ihesleku larrialdian. / Usteon dute zuregan ezagutzen zaituztenek, / zuregana jotzen duenik / ez baituzu, Jauna, bazterrean uzten"* (Sal 9, 10-11).

## 6. Jainkoak txiroen otoiitzak entzuten ditu

Eta egon ere, ongi lasai egon daitezke txiro eta behartsu horiek, euren otoiitzak beti ondo hartuak izango baitira. Jainkoak ez ditu inoiz bertan behera utziko. Jainkoa, ustea Berarengan jarri duten "behartsu" horiei laguntza emateko prest ageri zaigu aldioro. Horregatik onartuko ditu beti horien otoiitzak. Ez ditu utziko crantzun gabe. Eta Jainkoak erantzutea, behartsuen alde egitea izango da.

Horrialde asko beharko genituzke hori guztia argitu eta behar den cran homen jartzeko (ik.: 3,4-6; 6,9-10; 25; 30; 40 eta abar). Hona hemen Jainko errukitsu horren erantzuna gogora dakarkiguten atal batzuk:

*"Jaunarengan jarria nuen itxaropen guztia: / makurru eta entzun du nire deiadarra. / Herio-Leize sakonetik nau atera, / Haitz gainean tinko jarri ditu nire oinak, / seguruak egin nire pausuak"* (Sal 40,2-3)

*"Jakizue Jaunak harrigarriro jokatzeko duela / bere fededunaren alde, / entzun egiten dida-la deitzen diodanean. / Niri, ordean, Jauna, poz handia eman didazu, / horiek gari eta ardo ugariz dutena baino handiago. / Bakean etzaten naiz eta berehala lokartzen, / zuk bakarrik bainauzu, Jauna, lasai biziartzten"* (Sal 4,4,8-9).

*"Jauna dut artzain: ez zait ezer falta. / Larre guritan etzanarazten nau, / ur baretara eramaten, / eta indarrak berritzen; / bide egokitik narama, leiiala delako. / Ibar beltz ilunetan bana-*

*bil ere, / ez dut inolako gaitzen beldurrik, / zu nirekin baitzaude: / zure artzain-makilak lasaitzen nau" (Sal 23,1-4).*

### 7. Behartsuek Jangoikoarengan jartzen dute ustea

Hori guztia hala izanik bidezkoa zen "txiro" guztiak euren bizitza osoa Jaunaren eskuetan jarrita bizitzea. Zenbat salmotan ageri ote zaigu egia pozgarri hau! Bizi ere, oso-osoa honela bizi dira "behartsu", "makal", "txiki", "oinperatu" eta gainerako "gizagai-xo" horiek guztiak, euren etorrera osoa Jaunarengan jarrita. Begiratu: 11; 12; 22,2-3; 35,17; 39; 55; 61; 88 eta 102 salmoak edo eta gogora ekarri beste hauek: 33,18-22; 55; 62,2-3,6-10; 69,2-4; 130 eta 131. Hemen, adibide gisa, jarraiko ataletan ikusiko dugunez, uste handi hori amaren altzoan bere jazoera guztiak jarrita nasai bizi den umetxoaren antzerakoa izango da:

*"Jaunak ditu zaintzen begirune diotenak, / haren maitasunean itxaropen dutenak, / heriotzaitik libratu eta gosetea bizirik gordetzeko. / Guk Jaunarengan dugu itxaropena: / bera dugu laguntzaile eta babesle! / Harengandik datorkigu bihotzeko poza, / santua den harengan gure konfiantza". (Sal 33,18-21)*

*"Jaunkoarengan bakarrik atsedean nire barruak, / harengandik nire salbamena. / Bera bakarrik nire harkaitz eta salbamen, / nire gotorleku: inola ere ez naiz eroriko. / Ene barrena, Jaunkoarengan bakarrik izan atsedean, / harengandik baitator nire esperantza. / Bera bakarrik nire harkaitz eta salbamen, / nire gotorleku: ez naiz eroriko. / Jaunkoarengan nire salbamena eta ohorea, / Jaunkoa nire harkaitz sendo eta babesleku / Izan beti harengan konfiantza, haren herri zaretenok! / Zabaldu hari zeuen bihotza! Jaunkoa dugu babesleku!" (Sal 62,1-2,6-8).*

*"Jauna, nire bihotza ez da handimin, / ez nire begiak gorazale: / ez nabil gauza handien atzetik, / ez neurritz gainekoen atzetik. / Isil eta bare dut barne-gogoa; / haurtxoa amaren altzoan bezala, / haurtxoa bezala dut harengan gogoa. / Israel, izan Jaunarengan itxaropen / oraindik eta betiko!" (Sal 131,1-3)*

### 8. Txiroen uste hori neurrigabea da

Oso ederto ageri zaigu Jaunarengan ustea jartze hori, irakurri ditugun salmoetan. Txiroak, nahiz eta larri eta ito beharrean izan eta inondik ere argirik ez ikusi, ez dira kilikolo jarriko. Ez da ahultzen txiro eta behartsu horien itxaropena inguruetakoko beltzune artean aurkitu arren. Lariune horietan agertzen zaigu, hain zuzen ere, inoiz baino hobekiago zenbaterainokoa den uste hori eta nola bizi behar duen txiro ("anaw") batek Jaunkoaren laguntza urruti ikusten duen arren:

*"Salba nazazu, ene Jainko: leporaino ditut urak. / Istinga sakonean murgiltzen ari naiz, / eta oinak non tinkaturik ez. / Ur handietan nago sartua, eta korronteak narama. / Ene Jainko, ezaguizen duzu nire zabarkeria, / ez daude zuretzat eskutuan nire hutsegiteak. / Jauna, Jaun ahalguztiduna, / ez biezaie nire erruz usteak hutsegin / zuregan konfiantza dutenei; / ez nadila lotsabide gerta zuregana jotzen duenentzat, / oi Israelen Jainkoa! (Sal 69,2-3,6-7)*

*"Barru-barrutik egiten dizut dei, Jauna: / Entzun, Jauna, nire mintzoa! / Beude erne zure belarriak nire errege-oihura. / Erruak kontuan badituzu, Jauna, / oi Jauna, nork iraua bizirik? / Baina zuri barkamena dagokizu / eta, barkatuz, zureganako begirunea bizten diguzu. / Jaunaren zain nago, zain bihotz-bihotzez, / haren erantzuna dut itxaro. / Jaunaren esperoan nago, / gau osoan esnai, goizerarte beilari." (Sal 130, 1-6)*



### 9. Txiroak Jainkoa goratzen hasten dira

Azkenik, "Anawin" (txiro) horiek Jainkoaren babes eta laguntza hori ikusirik pozarren hazten zaizkigu kantari Jaun horren handitasuna eta berak egindako harriagarriak gogoratuz. Ustea Jaunagan jarrita bizi direnez eta Jainkoaren samurtasunak ikusi dituztenez, ezin isilik egon. Gogoera ekar ditzagun, bada, salmo-atal batzuk, txiro ("Anawin") horiek nolako esker-asmoak zituzten ikusteko:

*"Bai eder, Jauna, zu gozatea / eta Goi-goiko hori kantuz ospatzea, / goizean zure maitasuna iragartzea, / gau osoan zure leialtasuna. / Pozarren nauka, Jauna, zure ekintzak, / poz-oihuka zuk egindakoak, / Bai handiak, Jauna, zuk eginak! / Zeinen sakonak zure egitasmoak!" (Sal 92,2-3,5-6).*

*"Txolarreak badu etxea, bai enarak ere kumeentzat habia, / zure aldaeren ondoan, Jaun ahalguztiduna, / ene errege eta ene Jainko! / Zorioneko zure etxean bizi direnak, etengabeki zu gozesten! / Zorionekoak zuregan dutenak beren indarra / eta bihotz burruko konfiantza. / Hobe da egun bat zure atarrietan / mila egun beste edonon baino; / nahiago dut zure tenpluko ate ondoan egon / gaiztoen etxapean bizi baino. / Bai, Jainko Jauna dugu eguzki eta babeski / Jaunak egiten mesede eta ohore, / hark ez zoriona ukatzen prestu jokatzan dutenci. / Jaun ahalguztiduna, zorionekoa zuregan konfiantza duena!" (Sal 84,4-6,11-13)*

*"Kantu Jaunari kantu herria / kantu Jaunari, lurtar guztiok, / Kantu Jaunari, bedeinka haren izena! / Hotsegin egunez egun salbazaitela dela, / zabaldu haren ospea atzerrietan, / haren mirariak herri guztietan! / Handia baita Jauna, guztiz goresgarria / jainko guztien aldean beldurgarria. / Huis dira atzerriarren jainko guztiak; / Jaunak, ordea, zeruak egin ditu. / Disira eta handitasuna ditu inguruan, / indarra eta edertasuna haren santutegian. / Goretsi Jauna, munduko herriok, / goretsi Jaunaren ospea eta indarra, / goretsi Jaunaren izen ospetsua!" (Sal 96,1-7)*

*"Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari! / Zerbitza ezazue pozik Jauna, / joan oihu alaiz haren aurrera. / Aitortu Jauna-Jainko dela. / Berak eginak eta bereak gaitu, / bere herri eta berak larrauriko artalde. / Sartu haren tenpluko ateetatik eskerrak emanaz, / haren atarrietan goratzaitez. / eman eskerrak, bedeinka haren izena! / Bai, ona da Jauna, haren maitasuna betikoa, / haren leialtasuna mende mendekoa." (Sal 100)*

### Ondorioak

Aurreko guztia ikusi ostean, nola esan esaera labur baten bidez nortzuk diren txiro ("Anawin") horiek? Esaldi batean laburbidluz "lur honetako ondasunak alde batera utzi, norberaren ezereza aitortu, Jainkoaren neurrigabeko erruki maitagarrian uste osoa jarri, haurtxoak amaren altzoan egin ohi duen bezala konfiantza osoz lasai bizi eta, ondasunak Jainkoaren maitasun xamur horretatik itxaroten dituela, Jainkoaren errukiari kantari bizi dena" dela benetako txiro edo "Anaw" esan dezakegu.

Hausnarketa hau egin ondoren, begira diezaiogun, bada, orain Lisieux-ko Teresatxoren bizitzari zenbateraino bizi izan zuen, konfiantza osoa Jainkoarengan zuela, "txiro" edo "txiki" izate hori ikusteko.

### III.-TERESATXO, JAINKOAREN ("ANAW") TXIROA

Lan honen aurreko atalean, txiroak, apalak, kaskarrak, behartsuak eta honelakok direla Jainkoak maite dituenak eta Itun Zaharreko "Anawin" edo "txiroak" uste osoa Jainkoagan jarrita bizi zirela ikusi dugu. Era berean, baita ere, ezinbesteko zera dugula bihotzeko apaltasun edo txirotasuna Jainkoaren maitasun neurrigabea eskuratu ahal izateko. Orain, Teresatxoren bizitzara begiratuko dugu bere ibilbidea ikusteko. Horretarako, lehen atalean bezala, testuak gidari ditudala jokatuko dut, testu horietan agertuko baitzaigu Teresak bere bizitzan Jainkoarekin izan zituen harreman estuen islada.

Ugariak dira Teresatxoren bizitzan Jainkoaren aurrean txiki izateari edota Jainkoarengan konfiantza osoa jartzeari aipamen egiten dioten testuak. Hemen batzuk baino ezin bildu, lana amaiezinezkoa egingo litzateke eta. Izan ere, Teresatxoren, Eskuizkribu Autobiografiko, Gutun eta Azken Hitzen bilduma osoak "txiki" izateari eta konfiantzari egini-ko kantuak baino ez ditugu. Testu eder horiek irakurri eta gozatzek eraman gaitzate Teresatxoren konfiantzako mezu osoaz jabetzera.

#### I.- Bihotz apalak edo txikiak

Lehen eta behin, Teresatxok argi ikusi zuela, Jainkoarenganako konfiantzari oinarri sendoak ezartzeko, apal eta txiki izan behar hori aitortu behar:

"Hala ere, ez dago gizonaren esku bere bidea antolatzea, eta batzuetan distira egiten duena nahi dugula konturatzen gara. Jar gaitezen, beraz, apalki akastunen artean, Jainkoak geure ezerezaz jabeturik gaudela ikusten duenean luzatuko digu eskua; hala ere, zerbait *handia* egiten saiatu nahi badugu, gar izpiritualaren aitzakipean bada ere, Jesus onak bakarrik utziko gaitu. "hauxe esatea besterik ez nuen egin: nire oinak behaztopa egin zuenean, zure errukiak eutsi zidan, Jauna" (XCIII. salmoa). Bai, apaltzea eta norik bere hutsak gozotasunez jasatea, horra hor benetako santutasuna" (TG 243. ahizpa Jenofari, 1897.eko ekainaren 7an).

"Zorionekoa zu, Jesusek baizik ezagutzen ez zaituen ihintz-tantatxoa!..., ez zaituz gizakien harridura sortzen duten ibai ozenen bidea aztertzen gelditu, eta ez ezazu belardian kizkurtzen den erreka garbia inbidiatu. Errekaren marmarra gozoa da benetan, baina gizakiek entzun dezakete eta gainera, zelaietako Lorearen kalizak ezingo luke eduki. Ezin du Jesusena bakarrik izan. Jesusena izateko, txikia izan behar da, ihintz-tantatxoa bezain txikia! Ene, oso arima gutxi daude hain txiki gelditzea baizik itxaroten ez dutenak!... Baina ibaia eta erreka ihintz-tantatxoa baino onuragarriagoak ez al dira, ba? -esango dute beraiek-. Zertarako balio du ihintz-tantatxoa? Ez du balio gaur zelaietan dagoen baina bihar desagertuta egongo den lorea unetxo batez hezetzeko baizik.

Zalantzarik gabe pertsona hauek zuzen dabilta, ihintz-tantatxoak ez baitu horretarako baizik balio. Baina beraiek ez dute ezagutzen gure erbesteko lurrian bizi eta bertan bizitako gau motza igarotzea erabaki duen basa Lorea. Ezagutuko balute, Jesusek behin Martari eginiko errieta ulertuko lukete... Gure bihotzeko Maiteak ez du gure pentsamendu

handien eta lan paregabeen beharrik; ezta pentsamendu gorenenik ere: ez al ditu horretarako bere aingeruak eta izpiritu zerutiarren taldea, haien zientzia gure lur tristeko genio handiena baino haragokoa delarik?...

Jesus ez zen adimen eta dohain handikoen bila etorri lurrera. Xalotasuna maite duela erakusteko bilakatu zen zelaietako Lore. *Haraneko Liliak ez du ihintz-tantatxoa besterik nahi...*" (TG 141. Zelinari, 1893.eko apirilaren 25ean).

"Nik sentitzen dut, ezinezko batez, nirea baino ahulagoa, txikiagoa den arima bat aurkituko bazenu, atsegin izango zenukeela hura oraindik grazia handiagok betetzea, hark zure amaigabeko errukian uste osoz bere burua utziko balu". (B Esk. 5<sup>a</sup>).

Beste toki batean kainabera baten antzekoa dela dinosku, hain ahula izanik ekaitzaren indarrez lurreraino makurtzen dela, eta ez dela erdibitzen, hain zuzen ere, mengela eta ahula delako, makurtzean lurra jo eta indar berria hartuz berriro gora igotzen delako. (Ikus, idazlan honetan aipatzen diren irudiak; Cf. 378 orr.)

"Ai! ene neba, zein gutxi ezagutzen diren Jesusen *ontasuna* eta haren *maitasun errukitsuak*!... Egia da altxor hauetaz gozatzeko, apaldu egin behar dela, norbere ezereza aitortu, eta horixe da, hain zuzen ere, arima asko eta askok egin nahi ez dutena; baina, ene nebatxoa, zuk ez duzu horrela jokutzen. Horregatik, maitasunezko eta konfiantza apalezko bidea zuretzat oso ongi egina dago" (TG 261. Bellière apaizgaiari, 1997.eko uztailaren 26an).

"Oi! desleial izango banitz, desleialtasunik txikiena egingo banu, badakit ordaintzat tentaldirik handienak izango nituzkeela eta horrela ezingo nukeela heriotza onartu. Hori dela eta etengabeki esaten diot Jainko onari: "Ene, nire Jainko, gorde nazazula desleial izatearen zorigaitzetik erregutzen dizut.

Zein desleialtasunaz ari zara?

Harrokeriazko pentsamenduan nahita gozatzear. Nik neure buruari esango banio, esaterako, harako birtutea lortu dut, ziur nago praktikatzeko gai naizela. Hori neure indarretan oinarritzea izango litzateke eta horretara helduz gero leizera erortzeko arriskua izaten da. Bestetara aldiz, apala izanik, txikia izaten jarraituz, Jainko onari min eman gabe nire heriotza unerarte okerkeria txikiak egiteko eskubidea izango dut. Begiratu haur txikiak: gauzak apurtu eta urratu egiten dituzte eta erori egiten dira gurasoak bihotz-bihotzez maitatu arren. Horrela erortzen naizenean, nire ezereza ikusten dut eta neure artean pentsatsen dut: zer egingo ote nuke nik, zein izango ote litzateke nire izara neure indarretan oinarrituko banitz? (...) Ziurkiro uste dut San Pedrok apaltasunez Jesusi esan bazion: "Emaizkidazu, arren, indarrak zuri heriotzaraino jarraitzeko" berehala lortuko zituela". (Azken Elkarrizketak, 7.8.4).

"Ni txikia eta ahula nintzelako, hura nireganaino jaisten zen, ezkutuan bere maitasunaren gauzetan eskolatzen ninduen. Ai! Jakintsuak, euren bizitza ikasten eman ondoren, niri galdetzeraz etorri bafira, benetan txunditurik geldituko ziratekeen hamalau urteko haur batek nola urletzen dituen perfekzioaren ezkutuak ikusirik, beraien zientziak agertu ezin dizkien ezkutuak, horren jabe izateko gozoz behartsu izan behar baita!..." (A Esk. 49<sup>a</sup>).

Lisieux-ko Teresak "bihotzeko txirotasuna" aipatzen du. Hain zuzen ere, ondasunak ez edukitzeaz gainera, Jainkoaren aurrean ezer ez garela aitortuz bizitzean datzana. Txirotasuna, beraz, gure ezereza aitortu eta guztia Jainkoaren eskutik itxarotea izango da.

"Bai, Jesusek zera esan zuen: "Ene Aita, aldendu kaliza hau niregandik!". Ahizpa maitea, nola esan dezakezu honen ondoren, nire gurariak nire maitasunaren seinale direla?... Ai, ondotoxo dakit nire ariman ez dela horrela inola ere, Jainkoari atsegín egiten diona! Jainkoak atsegín duena nik *neure txikikeria eta pobretasuna maite ditudala eta haren errukian itxaropen itsuz sinesten dudala* ikustea da..." (TG 197, Maria Bihotz Sakratuarenari, 1896.eko irailaren 17an).

"Ene, nire ahizpa maitea, mesedez eskatzen dizut zure alabatxoá ulertzeko! Ulertu, mesedez, Jesus maitatzeko eta haren *maitasunaren opari* izateko, zenbat eta ahulagoa izan, inolako gurari eta bertuterik gabea, are eta hurbilago zaudela maitasun kiskaltzaile eta eraldatzaile honen ekintzetatik... Opari *izateko nahi* hutsa nahikoa da, baina beharrezkoa da beti txiro eta indarge izaten jarraitzea onartzea, eta hona hemen zailtasuna, 'non bilatu bihotzez benetan txiro dena?'. 'Oso urrun bilatu beharra dago' esan zuen salmogi-leak. Ez zuen esan arima handien artean bilatu behar denik, 'oso urrun' baizik, hau da, *apaltasunean, ezerezean*... Ai, irauñ dezagun, bada, dir-dir egiten duen *guztirik urrun*, maite dezagun gure txikitasuna, ezer ez sentitzea irrika dezagun; orduan bihotzez txiro izango gara, eta Jesus gu bilatzera joango da gu urruti bagaude ere, eta maitasunezko sugar bilakatu gaitu... Ai, neuk sentitzen dudana ulertarazi nahi nizuke!... Konfiantza eta konfiantza besterik ez da maitasunera zuzenduko gaituena... Beldurrak ez al gaitu justiziara bideratzen?" (TG 197, Maria Bihotz Sakratuarenari, 1896.eko irailaren 17an).

Argi ageri zaigu, bada, "bihotzez txiroak" izateko ez dugula nahikoa ondasunaz txiroak izatea; xirotasun edo txiki-izate hori maitatu egin beharko dugula; ez dagoela egiazko txiro edo behartsu izateko beste biderik. Izan ere, bere burua handitzat daukana, bere egiteak beretzat daukazana ezingo da egiazko "Anaw" edo txiroa izan, harroputza izanik ez duelako Jainkoagan ustea jartzeko premiarik ikusiko.

## 2.- Txiroa edo oinarririk gabeko gizakia

"Txiroa" edo "txikia" izanik, oso-osorik Jainkoarenak izatekotan, alabaina, ezin izakiengan oinarrituta bizi. Horregatik kendu zizkion Jainkoak Israel Herriari oinarri guztiak, oinak non jarri ez aurkitzean bihotz osoz Berarengana etor zedin. Teresatxok ere beste hainbeste esaten digu, hots, bihotzez txiroak izatekotan, gure bihotzak lokarri guztietatik askatu beharra dugula. Ezingo dugula benetako txiroa ("Anaw") izan uste osoa Jainkoarengan jarri beharrik sentitzen ez dugun artean:

"Ene Zelina, ene Zelina maitea!... Ez dago amildegietatik ihes egin beharrik. Jesusen beso artean gaude; eta ahots lagunkoiek beldur izateko aholkua ematen badigute, gure Maiteak halaxe *nahi duelako* da. Zergatik? Ene... Maitasun-bidean, Jesusek beretzat aukeratu zuen bide bera aukeratzen du bere emazteentzat ere... Pozik garbienak sufrimendu bihur daitezene nahi du, arnasa lasai hartzeko era izatean, gure bihotzak, gure eguzki eta poz bakarra denarengana irauli daitezene" (TG 149, Zelinari, 1893.eko urrian).

"Zelina gure irakasleotariko batekin zaletu zela ikusirik, neuk ere beste horrenbeste egin nahi izan nuen; baina sorkarien ederra irabazten ez jakirik, ezin izan nuen eta utzi egin nuen. Oi, zorioneko ez jakitea, zein gaitz handiatik alden du nauc! Zenbat esker-tzen diodan Jesusi "lurreko adiskidetasunetan samintasuna besterik ez aurkitzea"!; nirea bezalako bihotzarekin, erraz utziko nuen neure burua harrapatzen eta hegoak ebakitzen; orduan nola ahal izango nuen hegan egin eta atsedean hartu? Nola elkartu bihotz-bihotzez Jainkoarekin sorkariei emana den bihotz bat? Hau ezin daitekeela somatzen dut. Sorka-rien maitasun gartsuegiaren kaliza pozoitua edan gabe ere, ezin dudala hutsik egin kontu-ratzen naiz. Hamaika arima ikusi ditut gezurrezko argi horrek liluraturik, tximeleta erru-karriak bezala hegan eta hegoak erretzen, eta gero benetakora, maitasunaren argi gozora itzultzen direla, hark hego berriak, distiratsuagoak eta arinagoak emanik, Jesusenganantz, 'suntsitu gabe erretzen duen' jainkozko Sugar horrenganantz hegan egin ahal dezaten"(A Esk. 38<sup>a</sup>-38<sup>i</sup>).

"Proba handia da deua beltz ikustea, baina hori ez dago zuregan bakarrik. Askatu zure bihotza lurreko *kezketatik*, eta batez ere, gizakiengandik; gero, ziur egon *gainerakoa* Jesusek egingo duela, ez baitu utziko *lupetza* beldurgarrian eror zaitezzen" (TG 241. Marta Jesusenari 1897.eko ekainean).

"Apostoluak Jesusen laguntzarik gabe gau osoan aritu ziren lanean eta ez zuten ezer ere arrantzatu, baina haien lana gogoko izan zuen Jesusek. Jesusek berak bakarrik eman diezagukeela zerbait erakutsi nahi izan zien. Apostoluek *apaltasuna* izan zezaten nahi zuten... Semeok, esan zien, ez al duzue ezer jateko? -Jauna, erantzun zion san Pedrok, gau osoan aritu gara lanean eta ez dugu *ezer harrapatu*. *Arraintxo batzuk* harrapatu izan bali-tuzte, beharbada, Jesusek ez zuen miraria egingo, baina ez zuten ezer; hori dela eta, Jesu-sek sarea bete-bete egin zuen, ia-ia sarea urratzeraino. Hona hemen Jesusen *izateko era*. Jainkoaren antzera ematen du, baina *bihotzaren apaltasuna* eskatzen du..." (TG 161, Zeli-nari, 1984.eko apirilaren 26an).

Nola lortu, oster, *apaltasun* eta txikitasun horiek? Nola askatu lotura guztietatik gure bihotzak? Israel Herriak basamortuan eta atzerrian eginiko urteetan garbitu zuen bere erlijiotasuna, Jainkoarekiko harremanak sakonagoak eginez. Teresaren bizitzan ere antzerako bilakera gertatu zen.

Makinatxo bat samin eta bihotz-min eraman behar izan zituen bere bizitza osoa Jau-naren eskuetan guztiz jarri orduko: haurtxo zela gertatutako amaren heriotza; Paulina, amaordea moja joatea; bederatzi urte zituela izan zuen gaixotasuna eta ekarri zizkion ondoren guztiak; sarti izan ohi zuen bihotzeko bakerik eza; moja sartzeko jarri zizkioen oztipoak; aitaren eroaldia eta, batez ere, heriotza-aurreko sinesmen alorreko iluntasun gogorrak eta arima barruko estualdi eta larridurak.

Arotzak enborra aizkoraka erabili ohi duen bezala, erabili zuen Jainkoak bere asmo-tako irudi eder egiteko.

"Orduan Jesusek eskutik heldu eta ez hotzik eta ez berorik egiten ez zuen lurrazpi batera sartu ninduen, eguzkirik egiten ez zuen eta euririk ez haizerik heltzen ez zen toki-ra, Lurrazpi horretan ez nuen deus ikusten, argitasun erdi estaldu bat baizik, nire senar-

gaiaren aurpegiko begi eroriek isurtzen zuten argitasuna... Nire Senargaiak ez diosta ezer eta nik ere ez diotsat ezer; *neure burua baino maiteago dudala* bakarrik. Eta nire bihotzaren barrenean hau egia dela somatzen dut, areago bainaiz harena, neurea baino!..." (TG 110, Aines Jesusenari, 1890.eko abuztuaren 30-31n).

"Ene, hau erbestea, lurrekoa! Eta batez ere, den-denak huts egiten digula dirudien une horietan!... Orduantxe da hala ere zoragarria, orduantxe dagite salbazio egunek dir-dir..." (TG 129, Zelinari, 1891.eko uztailaren 23an).

"Baina bat-batcan inguratzen nauten gauak itsuago bihurtzen dira, nire ariman sartu eta hainbesteraino biltzen dute, non jadanik ezinezkoa baitzait neure aberriaren irudi hain gozoa han aurkitzea. Guztia aienatu da! Neure bihotzari, inguratzen duten ilunpeek nekaturik, irrikatzen duen herrialde argitsuaren oroipenez atsedena eman nahi diodanean, nire nahigabea areagotu egiten da. Ilunpeek, bekatarien ahotsa hartuz, nire lepotik barreka hau esaten didatela iruditzen zait: 'Argiaz egiten duzu amets, usainik gozoenaz lurrindaturiko aberriaz. Gauza harrigarri hauen guztien Egilea betiko zeureganantzeaz egiten duzu amets. Egunen batean inguratzen zaituzten gandu artetik irten ahal izango duzula uste duzu. Aurrera! Aurrera! Goza zaitetz heriotzaz, hark emango baitizu ez zuk itxaroten duzuna, oraindik gau ilunagoa baizik, ezerezaren gaua'.

Ama maite-maite hori, nire arima iluntzen duten ilunpeaz eman nahi izan dizudan irudia zirriborro bat bezain eskasa da modeloarekin konparatuz. Hala ere ez dut luzeago idatzi nahi; birao egingo dudan beldur nintzateke. Beldur naiz gehiegi esan ote dudan ere... (...) Zeruko zoriona, Jainkoa betiko neureganatzea kantatzen ditudanean, ez dut inolako zorionik somatzen, neuk sinetsi nahi dudana kantatzen baitut soilik. Batzuetan, egia da, eguzki-izpi txiki-txiki bat etorri ohi da nire iluna argitzera; orduan proba eten egiten da une batez. Baina gero, argi-izpi honen oroipenak poza eman beharrean, nire ilunpea itsuago bihurtzen du" (C Esk. 6<sup>1-7</sup>).

Gehiago oraindik, oinaze eta larrialdi horiek pozbide egitera heltzen da. Jainkoarekin maitasunean bat egiteko ezinbestekotzat hartuz, bake eta atsedean iturri bilakatu zaizkio bihotz barrenean:

"Zer dira kanpoko gurutzeak?... Jesusek gure arimak poztuko balitu, ezer sufritu gabe bana gintezke bata bestearengandik... Benetako gurutze bihotzaren martiritza da, arimaren sufrimendu barru-barukoa, eta inork ikusten ez duen gurutze hori, guk eraman ahal izango dugu sekula banatzen ez bagara.

Badakit esaten dizudan guztia eta ezereza gauza bera dela, zure barne-proba ez da bukatuko Jesusek jarritako egunerarte" (TG 167, Zelinari, 1894.eko uztailaren 18an).

"Uste dut Jainkoak lurrean horrenbeste sufriarazten badu, bere hautatuei zerua ederrago irudi dakien dela. Azken egunean malko guztiak xukatuko dituela esaten du eta zalantzarik gabe, zenbat eta malko gehiago duen xukatzeko, are eta poz handiagoa izango da!..." (TG 68, Martin Jaunari 1888.eko azaroaren 25ean).

"Zelina... Jesusek zukanako maitasun berezia sentitu behar du benetan, horrela frogatzen bazaitu. Badakizu ia-ia jeloskor nagoela? Asko maite dutenei Jesusek *gehiago*

ematen die, gutxiago maite dutenei, gutxiago" (TG 81, Zelinari, 1889.eko urtarrilaren 23/25ean).

"Ahizpatxo maitea, zein atsegin ditudan zure gutunak, eta batez ere, zenbat on egin dioten *nire arimari!* Atsegin dut benetan Jainkoak zein maite zaituen eta nola graziaz betetzen zaituen ikustea... Bere maitasunaren alde sufritzeko gai ikusten zaitu, eta horixe da eman diezazukeen samurtasun-seinalerik handiena, sufrimendua baita haren pareko egiten gaituena!..." (TG 173, Teresa Dositea (Leonia) ahizpári, 1895.eko urtarrilean).

Honela jokatu ohi du Jainkoak gizakia biluzik eta oinarririk gabe jarri arte. Honako hau historian zehar santuen bizitzan beti gertatu ohi den ibilbidea da. Israel Herriari ere beste hainbeste gertatu zitzaion. Bere burua bakarrik, oinarririk gabe ikusi zuenean egin zion benetako lekua Jainkoari (Dn.3,35-39).

### 3.- Neurririk gabeko ustea

Jainkoaren ahalegin horiek erantzun desberdinak jaso ohi ditu. Gizakiari neketsu egiten zaio bide horretatik zehar ibiltzea. Teresatxok ere etengabeki dastatu zuen iturri horretako ur samintsua. Baina, bere uste osoa txiro ("Anaw") batek bezala Jainkoarengan jarri, eta etsi gabe egin zuen bide latz horretatik aurrera.

Neurrigabea izan zen, izan ere, bere ustea! Hainbat aldiz aipatzen du ezinbestekoa dela Jainkoarengan konfiantza osoa jartzea. Ilunaldirik beltzenez ere Jainkoarengan zuen ustea galdu gabe jokatu zuen:

"Basamortu idor eta urgabea iruditzen zitzaidan lurlean ez nuen aurkitzen inolako laguntzarik. Jainko onarengan soilik zen nire itxaropen guztia... Ikusi berri nuen haren santuengana baino hobe zela berarengana jotzea (...) Egia esan, ausartegia nintzen!... Eskerrak bihotz barruak ikusten dituen Jainko onak badakien nire asmoa ona zela eta munduko ezergatik ere ez nukeela nahi hari nahigaberik ematerik. Haur baten antzera portatzen nintzen harekin, guztia zilegi dela eta bere aitaren altxorrek bereak bezala ikusten dituenaren antzera". (A Esk. 66<sup>a/1</sup>).

"Jaingoarengan nik hain konfiantza handia izatea, pekatuak ez dudalako egin dela uste izan lezake norbaitek. Esan argi eta garbi, nire Amatxo, egin daitezkeen bidegabeke-riarik handienak egin banitu ere, konfiantza berdina izango nukeela; gaiztakeria multzo izugarri hori suontzi gori batean eroritako ur tanta bat baino ez litzateke izango. Gero, damutu ondoren maitasunez hil zen andre pekatariaren bizitza kontatuko duzu. Arimek berehala ulertuko dute esan nahi dudana, adierazteko adibide ezin hobea baita, baina horrelakoak ezin dira azaldu [ Novissima Verba-k gehitzen du:

Hona hemen berak hitzez hitz diktatutakoa:

"Basamortuko Gurasoen bizitzan kontatzen da haietako batek konbertitu egin zuela eskualde osoa eskandalizatzen zuen emakumezko bekatari publiko bat. Bekatari hau, graziak ikututa, basamortura joan zen Santuarekin bertan penitentzia gogorra egiteko eta, bidaiaren lehen gauean bertan, artean bere erretiro-tokira heldu gabe, maitasunez beteriko

bere damutzearen indarrak bere lotura hilkorrak hautsi zituen, eta bakartiak une berean ikusi zuen aingeruek zeramatela haren arima Jainkoarengana. Hona hemen nik esan nahi-ko nukeenaren adibide oso deigarria, baina gauza hauek ezin daitezke azaldu...] (Azken Elkarriketak, 11.7.6).

“Ene Paulina laztana, gaur ezin dizut nire bihotza betetzen duten gauza guztiez hitz egin, ez bainaiz barruan ditudan ideia guztiak antolatzeko gauza. Hala ere adoretzu nago, badakidalako Jainkoak ez nauela bertan behera utziko. (...). Ene bada, ez diot ezertxo ere ukatu nahi! Mundu honetan goibel eta bakarrik sentitzen naizenean ere, bera hortxe izango dut. Ez zuen, bada, esan Santa Teresak Jainkoa bakarrik nahikoa da” (TG 27, Aines Jesusenari, 1887.eko urriaren 8an).

#### 4.- Jainkoaren altzoan

Jainkoagan hainbesteko ustea izate horrek gertaera guztiak haren eskuetan itxi eta umetxoa amaren altzoan inolako ardurarik gabe bizi den eran bizitzera eraman zuen. Ezin nik hemen hitzez argitu norainokoa izan zen Teresaren maitasuneko sua edo neurririk gabeko ustea! Kontaezinak dira hori gogoratzen diguten bere idazkietako atalak:

“Oker zabiltza, ene maitea, zure Teresatxo bertutearen bidetik beti sutsu joan izan dela uste baduzu. Teresa ahula da, oso ahula, egunero izaten du bere ahuldadea frogatzen dion esperientziaren bat; baina Maria, Jesusek san Paulori bezala, gaixotasuna gorensten erakusten dizu. Hau grazia oso handia da eta zuri ere erakuts diezazun eskatzen diot Jesusi, hortxe bakarrik aurkitzen bailira bihotzeko bakea eta atsedena. Zeure burua hain ezereza ikusten duzunean, zeure buruaz horrenbeste arduratzeari utzi eta zeure Maiteari bakarrik begiratzen diozu...” (TG 109, Maria Guérin-i, 1890.eko uztailan).

“Zure Teresa une honetan ez da bere unerik onenean aurkitzen baina Jesusek, ‘bere baitan daukan *on eta txar* guztitik zerbait onuragarria ateratzen erakutsi dio’. Maitasunaren banku-jolasean jokatzeko erakutsi dio, edo ez, hobeto esanda, Jesus da Teresaren ordez jolasten duena, nola baliatzen den azaldu gabe, hori Jesusen arazoa baita eta ez Teresarena. Teresak egin behar duena utzi eta Jesusen esku jartzea da, beretzat ezer gorde gabe eta bankuak zenbat luzatzen dion jakiteaz ere poztu gabe” (TG 142, Zelinari, 1893ko uztailaren 6an.).

“Zelina, badakit nire kantuak esan nahi lizukeen guztia ulertzeko gai izango zarela! Ene ba, erruki nitaz! Beste hizkuntza bat beharko litzateke, lurrekoaz ezberdina, arima batek Jesusen eskuetan bere burua uzten dueneko edertasuna adierazteko... nire bihotzak ezin izan du sentitzen dudana toteika baizik ahoskatu...” (TG 161, Zelinari, 1894.eko apirilaren 26an).

“*Ahizpatxo* maitea, bai, den-dena ulertu dut... Jesusi bere graziaren eguzkiak zure ariman argi egin dezala eskatzen diot. Ai! ez ezazu beldurrik izan *maite duzula* esateko, *sentitzen ez baduzu ere!* Horixe da Jesus zu laguntzera eta oinez egiteko baimo ahulagoa den umetxoaren antzera eramatera *behartzeko* era” (TG 241, Marta Jesusenari, 1897.eko ekainean).



"Trenbideko geltokian trenera igotzeko gurasoen zain dagoen umetxoaren antzerakoa naiz. A, ez dira heitzen eta trenak aurrera egiten du! Baina, badira beste tren batzuk ere; ez ditu guztiak galduko..." (Azken Elkarrizketak, ekainaren 9).

"Heriotzari buruz esaten didana ez zait barrura sartzen; laban egiten du baldosa baten gainean bezala. Amañtu zen! Heriotzari buruzko itzaropena gastatuta dago! Zer esanik ez, Jainkoak ez du, gaixotu aurretik bezala, horretaz arduratu nadin nahi. Orduan beharrezkoa eta oso onuragarria nuen pentsamendu hori; seguru sentitzen nintzen. Baina orain alderantziz da. Jainkoak, berarekin zer egingo duten pentsatzen ez duen ume txikiaren antzera, Beragan konfiantza jartzea nahi du." (Azken Elkarrizketak, ekainaren 15).

"Aparteko bizimodua egin zuten San Simeon Estilita bezalako santu batzuk aipatu nizkion. Hau esan zidan:

Nik, maiteago ditut Santa Zeziliaren antzera, ezkondua izaten utzi eta ezeren beldurrik izan ez zuten ausartak..." (Azken Elkarrizketak, ekainaren 30).

## 5.- Irudi batzuen bidezko mintzoa

Lisieuxko Teresak, salmoetan bezala, larrialdi horietan agertzen du, era berezian, txiro ("Anaw") izatearen sakoneko esangura. Baina ez digu horretan bakarrik agertzen zer den txiro-bizitza hori. Irudi zoragarri batzuk ere eskaintzen dizkigu barneko bizitza hori azalarazteko.

Irudi horiek, ispilu dizitiratsu batzuen pareko izanik, hemen jaso nahi izan ditut, daukan ikuspegira sakontasunez hurbiltzeko bide izango ditugulakoan:

### a) Jesusen pilotatzea

"Orain dela denbora pixka batez gero, Jesus Haurrari eskaini nion neure burua haren jostailutxo izateko. Haurrek, ukitzen ausartu gabe, begiratu besterik egiten ez dioten jostailu garestitzat ez nintzala har esan nion, batere baliorik ez duen pilotatxotzat baizik; lurrera bota, otikoaz jo, zulatu, bazter batean utzi, nahiz, hala nahi izanez gero, bihotzaren kontra estutzen den pilotatxotzat. Hitz batez, nik Jesustxok ongi pasatzea nahi nuen, hari poz ematea, haren haur-mainetarako eskaini neure burua... Entzun zuen hark nire otoitza...

Erroman Jesusek zulatu egin zuen bere jostailutxo. Barruan zer zeukan ikusi nahi zuen; eta barrua ikusi ondoren, bere aurkikuntzarekin pozik, lurrera erortzen utzi zuen bere pilotatxo, eta loak hartu... Zer egin zuen bere lo gozo bitartean, eta zer gertatu zen bertan behera utzitako pilotatxoarekin?... Jesusek ametsetan egin zuen oraindik bere jostailuarekin jolasten ari zela, aldizka utzi eta hartu eginez. Eta gero biraka urrutira jaurti ondoren, bere bihotzaren kontra estutzen zuela, harrezkero sekula bere eskutxotik aldentzen utzi gabe...

Ulertuko duzu, ene Ama maite, zein triste egongo zen pilotatxo bere burua lurrean ikusteaz... Hala ere, ustearen kontra uste izanez irauten nuen." (A Esk. 63<sup>1</sup>-64<sup>a</sup>).

## b) Jesusen txoritxo

"Nik lumatxa leun batez soilik jantzitako txoritxo ahul baten antzera ikusten dut neure burua. Ez naiz arranoa; begiak eta bihotza ditut soilik harenak, ezin txikiagoa naizen arren, tinko begiratzera ausartzen naiz Jainko-Eguzkiari, Maitasun-Eguzkiari, eta nire bihotzak Arranoaren gurari guztiak sentitzen ditu bere baitan... Txoritxoak hegana egin nahi luke bere begiak liluratzan dituen Eguzki distiratsu horrenganantz; bere anaia arranoak imitatu nahi lituzke, Hirutasun Santuaren jainko-sugareraino igotzen ikusten baititu... Ai! Bere hego txikiak astintzea da hark egin dezakeen guztia, baina hegana egitea, ez dago haren ahal izate txikiaren mende. Zertan amaituko ote da? Penaz hilko ote da bere burua hain ezindua ikusirik?... Ez horixe! Txoritxoak ez da nahigabetu ere egingo. Buru-uzte ausartaz bere Jainko-Eguzkiari begira gelditu nahi du; ez luke jakingo ezerk ere hura beldurtzen, ez haizeak eta ezta euriak ere. Eta hodei ilunak Maitasun-Astroa estaltzen etorriko balira, txoritxoak ez litzateke lekuz aldaruko; badaki hodeietatik harantz, bere Eguzkiak argi egiten duela beti; haren argitasuna ez litzatekeela unetxo batean ere ilunduko. Batzuetan, egia da, txoritxoak ekaitzak erasotua aurkitzen da; ingururatu duten hodeiak besterik ez dagoela sinistu uste du. Orduantxe da izaki gaixo eta ahularentzat poztasun oso-osoa unea. Bai zoriona harentzat hala ere han gelditzea, bere fedeari ezkutatzan zaion argi ikusezinean begiak funkatzea!!!... Jesus, orain arte, ufertzen dut txoritxoari diozun maitasuna, ez baitu zure ondotik alde egiten...

Baina nik badakit, eta zuk ere badakizu, batzuetan sorkari txiki inperfektua, bere lekuan gelditu arren (hau da, Eguzkiaren izpien mende), bere zeregin bakarretik aldendu egiten da pixka bat, garautxo bat hartzen du ezker eta eskuinean, har txiki baten atzetik joaten da... Gero, ur-potxingotxo bat aurkiturik, bertan bustitzen ditu bere luma doi-doi eratuak. Gogoko duen lore bat ikusten du, eta haren izpiritu nimitsoa lorearekin jostatzen da. Hitz batez, arranoak bezala hegana egin ezinik, txoritxo gaixoa luireko huskerietan aritzen da oraindik. Hala ere, bere okerkeria guztien ondoren, bere mixeriangatik negar egiteko eta damuz hiltzeko bazter batean ezkutatu beharrean, txoritxoak bere Eguzki maitearengana itzultzen da, bere hegotxo bustiak haren izpi ongileetara jarri, eta intziri egiten du enarak bezala. Eta bere kantu gozoan zehatz-mehatz esaten, kontaktan ditu bere desleialtasunak, bere buru-uzte ausartegian pentsatuz, honela eskumen handiagoa bereganatuko zuela, hobeki erakarriko zuela zintzoei ez baina bekatariei dei egitera etorri zen Haren maitasuna...

Astro Gurgariak bere sorkaritxoaren txorrotzio negartiei entzungor eginez jarraitzen badu, ezkutaturik jarraitzen badu... ba, orduan sorkaritxoak bustirik geratzen da, ontzat dauka hotzak harturik egotea, eta areago oraindik, poztu egiten da berak, dena dela, merezia duen sufrimendu honegatik... Oi, Jesus, bai zoriotsu dela zure txoritxo ahul eta txiki izanik! Zer gertatuko ote litzaioke handia balitz?... Ez luke sekula ere zure aurrean agertzeko, zure aurrean erdi lo egoteko ausardiarik izango... Bai, hau ere txoritxoaren ahultasun bat da, Jainko-Eguzkiari tinko begiratu nahi dionean, eta hodeiek izpi bat bera ere ikusten uzten ez diotenean; bere gogoz kontra, itxi egiten dira haren begitxoak, haren burutxoak hegapean gorde, eta gaixoa loak hartzen du, beti ere Astro maiteari tinko begira dagoelakoan. Esnatzean ez da deskontsolatzen; haren bihotzkoa bakean geratzen da. Bere maitasun-ofizioari ekiten dio berriro. Aingeru eta Santuei dei egiten die, arranoak bezala,

bere gurarien jomuga den Sugar kiskalgarriarengana hegaldatzen diren haiei. Eta arranoek, euren anaiatxoaz errukiturik, babestu, zaindu egiten dute, eta ihes eragiten diete iren-tsi nahi luketen saiei. Txoritxoak ez da deabruen irudi diren saien beldur. Ez da haien harrapakin izatekoa, Maitasun-Eguzkiaren erdian ikusten duen Arranoarena izatekoa baizik" ( B Esk. 4<sup>1</sup>-5<sup>a</sup>).

#### c) Jesusen loretxoa

"Orain dela urte t'erdiz gero, Jesusek aldatzea nahi izan du bere loretxoari haziera emateko era; ezbairik gabe, nahiko ureztaturik aurkitzen zuen, orain eguzkia baita haziarazten duena. Jesusek ez du jadanik nahi harentzat bere irribarrea besterik, eta hori ere, ene Ama maite-maitea, zure bitartez ematen zaio. Eguzki gozo honek loretxoa zimeldu gabe, harrigarriro haziarazten du. Kalizaren hondoa berak hartu dituen ihintz-txiztil preziatuak gordetzen ditu hark, eta txiztil hauek txikia eta ahula dela gogorarazten diote beti...Sorkari guztiak makur daitezke haren gain, miretsi eta laudorioz bete dezakete. Ez dakit zergatik, baina ezerk ez luke lortuko poztasun-tanta faltsu bat bera ere eranstea loretxoak bere bihotzean dastatzen duen poztasun benetakoari, Jainko onaren begietan zer den ikusiz: gauza urritxo ezereza, besterik ez... ez dudala ulertzen zergatik den diot; baina ez ote da bere kaliza txikia apalkuntzaren ihintzez nahiko betea ez zegoen denbora guztian, laudorioen uretatik babesturik egon zelako? Orain ez dago arriskurik honezkero, bestera baizik; loretxoak hain atsegina du betetzen duen ihintza, non ez bailuke inola ere trukaturiko laudorioen ur hain gezagatik.

Ez dut hitz egin nahi, ene Ama maite hori, ematen dizkidazun maitasun eta konfiantzaz. Ez uste izan zure alabaren bihotza sentipenik gabea denik. Bakarrik ongi jabeturik nago orain jadanik ez dudala ezeren beldur izan beharrik, bestera baizik: haietan goza ninteke, niregan jarri nahi izan duen ona Jainko onari ezarritz. Berak nahi badu niri naizen baino itxura hobea ematea, hori ez da nire kontua, bere eskuko da nahi duen bezala jokatzeke..." (C Esk. 1<sup>1</sup>-2<sup>a</sup>).

#### d) Jesusen kanaberatxoak

"Bai, benetan ditut irrikatzen bildotsak azaltzen dituen bihotzeko nahigabe eta zazitadak. Kanaberari ez dio axola makurtzeagatik, urertzean bizi denez ez baita hautsiko den beldur. Makurtzen denean lurra jo beharrean, uhin ongile bat aurkitzen du; uhin ongile honek indartu egiten du eta bere buru ahularen gainean beste ekaitz handi bat sor dadin eskatzen du. Haren ahuldadean datza usteon guztia. Ezin du hautsi, gertatu ahala gertatu, Jesusen eskua nonahi ikusten du-eta... Batzuetan, kanaberari jasangaitzagoa zaio haize-bolada txiki bat haizerauntsi handia baino, azken honek bere erreka maitean bustitzeraino makurtarazten duelako. Haize-boladek, ordea, ez dute uretaraino makurtarazten, zaitada hutsak direlarik..."(TG 55, Aines Jesusenari, 1888.eko uztailaren 5-9an).

#### d) Jesusen txalupatxoak

"Nahigabe honetaz zuri hitz egin baino lehen, ene Ama maite, nire profesia aurreko bakaraldiaz hitz egin behar nizun. Ez zidan kontsolamendurik ekarri, ez horixe; idortasu-

nik handiena, eta ia bertan behera uzte osoa izan ziren nire ondarea. Nire untzitxoan Jesus lo zegoen, ohi zuenez. Ai! Badakit ongi arimek gutxitan uzten diotela eurengan lasai lo egiten. (...) Ziur aski ez da esnatuko betikotasuneko nire bakarraldi handira arte; baina honek tristatu beharrean, atsegin ezin handiagoa ematen dit...

Benetan urrun nago santa izatetik, eta honek baino hobeki ez du ezerk frogatzen. Neure idortasunaz poztu beharrean, hori neure berotasunik eta zintzotasunik ezari egotzi beharko nioke. Tristatu egin beharko ninduke (zazpi urte igaro ondoren) neure otoitzaldietan eta neure eskerrak emateko uneetan lo egiteak. Ba, ez; ez naiz tristatzen... Hautxoak gurasoentzat berdín-berdín direla atsegingarri, pentsatzen dut, lo daudenean nahiz itzarrik daudenean. Euren ebakuntzak egiteko, pentsatzen dut, medikuek lo eragiten dietela euren gaixoei. Hitz batez, pentsatzen dut, "Jaunak ikusten duela gure abulezia, gogoan duela hautsa besterik ez garela". (A Esk. 75<sup>l</sup>-76<sup>a</sup>).

"Nire untzitxo ezin da portura iritsi; bada denbora itsasertza ikusten natorrela, baina hala ere, portutik urrun sentitzen naiz oraindik. Dena dela, Jesustxo da nire untziaren gidari eta ziur nago, berak nahi duenean, berehala portuan sarraraziko duela" (TG 43 B. Aines Jesusenari, 1888.eko martxoaren 18an).

Irudi horiek dira Teresaren arimaren ispilu atal gardenak. Beraietan argi ageri zaigu zenbaterainoko konfiantza zuen Jainkoarengan, berdintsu irauten zuela une latzetan aurkitzen zenean ere. Baditu beste konparazio batzuk ere (hare-alearena, bola nahiz ziba jokoarena,...) baina ezin denak hemen jaso. Dena den, nabarmentzekoa da zenbateraino erabiltzen duen adibide horietan zein beste hainbat ataletan, "txiki", "txiro", "ezerez" izatea aditzera ematen duen "-txo" atziki txikigarria.

#### 6.- Guztioi eskainitako bidea

Aipatutakoa bilduta, agian, Teresatxo santutasunaren goi mailan, gailurrean ikusirik, ezer gutxi egin dezakegula bide horretatik irudituko zaigu. Irakatsi zoragarri horiek ez direla guretzat, berak guztientzat biderik errazena eta zuzenena dela uste bazuen ere. Hala ere, urteak joan urteak etorri, bizirik dirau, gaur egun ere, Teresatxoren mezuak, Ebanjelioan bertan erroturik dituelako sustraiak.

Uste osoa Jainkoagan jarri eta etengabeki, inoren eta ezeren beldurrik gabe, aurrera egiteko dei ditugu. Jainkoaren aitzoan biziz gero, nor egin egiatan kafterik guri? Konfiantzan oinarritutako bidetik egiteko, alabaina, gizaki zaharraren lokarriak askatu eta "txiki" egin behar geure buruak. Bestela, uste osoa Jainkoagan ez dugunez jarriko ezingo dugu hegazka egin, ezingo dugu aurrerapausurik eman:

"Emaidazue palanka bat, euste-puntu bat, eta mundua jasoko dut". Arkimenes-ek lortu ezin izan zuena, haren eskaria Jainkoari zuzendua ez zelako eta, gainera, ikuspegi materialetik egin zelako, santuek lortu dute bete-betean. Ahaiguztidunak euste-puntu bat eman die: Berbera, bera bakarrik. Jasotzeko, maitasun-suaz erretzen duen otoitza. Eta horrela jaso dute mundua. (...) Ez naiz lehiatzen lehen tokia hartzera, azkenengoa hartzera baizik. Fariseoarekin batera aurreratu beharrean, uste onez beterik errepikatzen dut zerga-

lariaren otoitz apala. Baina, batez ere, Madalenaren jokaera imitatzen dut; haren ausardia harrigarria, edo hobeki esan, Jesusen bihotza liluratzen duen eta nirea zorutzen duen haren ausardia amoltsua. Bai, ni ziur nago egin daitezkeen bekatu guztiak neure kontzientziaren gain banaitu ere, bihotza damuaren damuz urraturik joango nintzatekeela Jesusen besoetan neure burua uztera, berarengana itzultzen den seme galdua zein maite duen ongi dakit-eta. Ez da izan Jainko onak, bere erukiaz aurre harturik, nire arima bekatu astunetik gorde duelako ni harengana igotzea, konfiantza eta maitasunagatik baizik." (C Esk. 6<sup>a</sup>-7<sup>a</sup>).

"Egin dezagun aita batek bi seme esanixarreko eta bihurri dituela, eta hauek zigortzerakoan, seme bat dardarka hasi eta beregandik urruntzen ikusten duela, bihotzaren sakonean benetan zigortua izatea merezi duela agertaraziz; haren anaiak, ordea, aitaren besoartera hurbildu eta honi atsekabe emateaz damutzen dela diotso, maite duela eta hori horrela dela agertzeko, aurrerantzean ona izango dela. Seme honek aitari musu bat emanetz zigortzeko eskatzen badio, ez dut uste zorioneko aita horren bihotza haren seme-konfiantzaren aurrean bigunduko ez denik, haren zintzotasun eta maitasuna ezagutzen baititu. Ez du ahaztuko, hala ere, bere semeak behin eta berriro huts berberak egingo dituenik, baina beti barkatzeko prest egongo da, semeak bihotza irabazten baldin badio... Lehenengo semeaz ez diotsut ezer, ene neba maitea, ulertuko duzu aitak bigarrena bezain maite izango duela eta erruki berberaz tratatuko duela" (TG 258, Bellière apaizgaiari, 1897.eko uztailaren 18an).

"Hain ongi dakit maitasunak izan ezik ezerk ez gaituela Jainko onarentzat atsegin-garri egingo, non maitasun hau baita nik nahi dudan ondasun bakarra. Jesusek gogoko du jainko-sugar honetara daraman bide bakarra niri erakustea. Bide hau, beldur gabe bere aitaren besoetan loak hartzen duen haurtxoaren buru-uztea da... 'Norbait txikitxo bada, betor niregana', esan zuen Espiritu santuak Salomonen ahoz. Eta maitasun Espiritu honek berak esan zuen gainera, 'errukia txikiei ematen zaiela'. Haren izenean, Isaias profetak agertzen digu azken egunean 'Jaunak larretara eramango duela bere artaldea, hark bildostxoak bilduko dituela eta bere bihotz ondoan estutu'. Eta agintzari guztiok gutxi bailiran, profeta berberak, jadanik gogo-argiz bere begirada betikotasunaren sakonean barneratzen zuclarik, oihu egin zuen Jaunaren izenean: 'Amak bere haurra laztantzen duen bezala, halaxe kontsolatuko zaituztet nik zuok. Aitzaan eramango zaituztet eta neure belaun-gainetan gozatuko. Oi, amabitxi maite! Honelako hizkuntza entzun ondoren, isilik egotea, eskerronez eta maitasunez negar egitea besterik ez dugu... Ai! Arima ahul eta akastun guztiak, arima guztietarik txikienak, zure Teresaxoren arimak sentitzen duena sentituko balute, batek ere ez luke galduko maitasun-mendiaren gailurrera iristeko itxaropena, Jesusek ez baitu egintza harrigarriak eskatzen, buru-uztea eta eskerrona baizik (...) Hona hemen Jesusek guri eskatzen digun guztia. Ez du gure egintzen inolako beharrik, maitasunarena bakarrik baizik". (B Esk. 1<sup>a</sup>-1<sup>1</sup>).

\*\*\*\*\*

Hainbat aipamen eder egin ondoren heldu gara lantxo honen azken lerroetara. Mezu pozgarria jaso izan dugu Teresaxoren idazkietan. Beste hainbat atal, laburtu beharriaren ondorioz, isilean geratu dira. Hemen aipatutakoak, Teresa, Itun Zaharreko "Anawin" (txi-

roak) deituek bezala, ilunaldietan ere, Jainkoarengan osozko konfiantza jarriz txirotasuna pozez bizi izan zuen santa bat izan zela azaltzen digute.

Hori guztiori, oster, salmolariek ez bezala, osotasun handiagoz Ebanjelioetako argi berri indartsuak argituta egin ahal izan zuen. Jesus berbiztuaren argi ditziratsuaren berotasuna barnean sentituz jardun zuen itxaronpetsu uneoro, Jesus eredu eta jomuga zuela. Horrela errazago lortu ahal izan zuen bihotzez guztiz apal eta txiro izate hori, guri ere konfiantzazko bide berriak irekiz .

*Patxi Uribarren*